


TIPOGRAFIA • 'Euskara' izeneko letrak

2

Letren hizkuntza

Thierry Arsaut tipografoak ordenagailuan erabiltzeko hamalau euskal letra diseinatu ditu

Euskal herritarrok badugu gure tipografia; urteetan bailaratan gordetako. Thierry Arsaut tipografoak *Euskara* izeneko letrak diseinatu ditu. Ostiralean salgai jarriko dituzte, Bilbon.



Ane Sarasketa • Donostia

Ordenagailuan idazten dugun bakoitzean jantzi egiten ditugu hitzak, halako edo bestelako tipografiarekin. Baina tipografia moda baino gehiago ere bada. Izan ere, zenbait tipografia historia-kontalarien modukoak dira. Tipografiaren bitartez, batzuetan, herri baten nortasuna, historia eta ezaugarriak ikas daitezke. Hala dio Thierry Arsautek. *Euskara* izena daramaten hamalau letra mota ikertu eta diseinatu ditu Arsautek. Tipografia hori jaso eta euskarri informatikoan erabiltzeko moduan bildu du.

Euskal tipografiarekiko grina txiki-txikitatik datorkiola dio Arsautek. «Aita Donapaleukoak dut, eta bertan eman nituen nire lehen urteak. Gero, atzerrira joan ginen bizi izatera. Dena den, nerabezaroran ere euskal letrak eta sinboloak erabiltzen nituen idazteko edo margoak egiteko. Euskal Herrira bueltatzeko aukera izan nuenean, bertako tipografia aztertzeari ekin nion», kontatu du. Orain Miarritzen bizi da Arsaut, eta han jarraitzen du bere ikerketa, euskal tipografiaren inguruan.

Azken hamahiru urteotan jaso eta diseinatutako letrak *Euskara* izenez bataiatu ditu, eta letra talde bako-


tzari bigarren izen bat ezarri dio —ikus ondoko taulan—. «Diseinatu ditudan euskal letrak *Roman* estilorekin zerikusi handia dute. Baina euskal letrak gorputz oso indartsua dute, eta bukaera erregularrak. Hori da beren ezaugarrietako bat», azaldu du.

Hinrich Sachs artista eta proiektu kulturalen kudeatzaileak dio Erdi Aroko tipografiari oso lotuta dagoen tipografia dela gurea. Europari lotuta dauden letrak dira euskal herritarrenak. Baina ez dira hemengoak soilik; alegia, Erdi Aroan erromatarrek eta gerora zeltek erabiltzen zizuten tipografiaren ezaugarriak dituzte euskal tipoek. «Badut Basileako mural bat, etxean. Hilobi baten margoa da, eta, bertan, euskal tipografiak ikus daitezke. VII. eta VIII. mendeko abade eta fraideek erabiltzen zuten letra mota hori», azaldu du Sachsek.

Euskal letrak gure haranetan garatu eta mantendu dira; Pirinio inguruko haranetan batik bat. Izan ere, Erdi Aroan haranak ziren garapenerako gunerik egokienak. Bertan sortu dira euskal tipografiaren adarrak, eta bertan mantendu eta gorde dira ongien. «Urte hauetan guztietan ez ditugu galdu euskal letren erraiak. Euskaldunek zorrotz gorde dute bere tipografia. Segur aski, oraindik erabil-



Estilo erabiliaren arteko konbinazio bat da; azken 50 urteotan erabili diren estiloen arteko nahasketa. Euskarak bere alfabetoan dituen letra propioak jasotzen ditu; /tl/, /dd/, /rr/, /ts/, /hz/ eta /tx/ besteak beste. Letra larriaren formak biltzen ditu familia horrek...




1930. urte ingurukoa da. Francoren diktadura garaian debekatu egin zuten letra mota hori. Zenbait euskaldunek eta errepublikarrek Ipar Euskal Herrira eraman zituzten ereduak. Ordu hartan legez kanpokoak ziren euskal argitarapenetan erabili zuten. Inprentan erabiltzeko diseinatu den letra bakarra da



Karaktere erabiliak biltzen ditu *Euskara Gernika* letra motak. Estilo oso aberatsa du; eta oso erabilia. Hizki tipo honen formak antzinakoak dira, eta neurri txikiko letra mordo bat biltzen du bere baitan —beste *Euskara* aldaera batzuetan ezin aurki daitezkeena—



Hego Euskal Herrian erabili izan da batik bat *Euskara Kaxko* letra mota. Estilo sinplea duten letrak dira; bitxikeria larregirik gabekoak dira, eta tamaina txikiko letrak ez du aldaera horrek. Letra biribilak dira; eta indartsuak.



Letra larri eta txiki guztiak batzen dituen aldaera bakarra da. Hitz bakanak eta konbinazio guztiak jasotzen ditu; eta azentua eramaten duten letra guztiak. Hala, hizkuntza batean baino gehiagotan erabiltzeko aukera eskaintzen du.



Estilo sinplea duten letrak dira; bitxikeria larregirik gabekoak dira, eta tamaina txikiko letrak ez du aldaera horrek. Letra biribilak dira; eta indartsuak.



Letra larri eta txiki guztiak batzen dituen aldaera bakarra da. Hitz bakanak eta konbinazio guztiak jasotzen ditu; eta azentua eramaten duten letra guztiak. Hala, hizkuntza batean baino gehiagotan erabiltzeko aukera eskaintzen du.

